


# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko otsailak 6 • 115. zka.

## Herriko ermittak

Aratusteak ■ Imanol Aranzabal ■ Santa Ageda mutilak



**1997-98 ikasturterako izena emateko epea zabalik**  
**Otsailaren 13tik 28ra**  
**ORDUA: arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara**

# Mozorrotuko zara aratusteetan?

**Igone Zaloña**

(Ikaslea)

Bai, lagunekin mozorrotuko naiz, Euskal mitologiako pertsonaia batzuen.

Herriko aratusteetan oso giro ona egoten da eta merezi du mozorrotzea.



**Unai Beitia**

(Ikaslea)

Bai. Koadrilan mozorrotuko gara. Oraindik ez dut mozorroa guztiz prestatu baina fantasma jantziko gara.



**Txomin Manteka**

(Langilea)

Uste dut baietz. Tabernan egongo naiz eta normalean urtero mozorrotu izan gara.

Herriko aratusteak oso onak iruditzen zaizkit, giro ona egoten da kalean.



**Idoia Unanue**

(Langilea)

Umearekin batera mozorrotzeko asmoa daukat baina oraindik ez dut mozorroa ondo pentsatu.

Normalean urtero mozorrotzen naiz, ondo egoten dira herriko aratusteak.



## eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria


## Aratusteetan parte har dezakezu

**Karnabal domekan ondo pasetiaz gain lagundu be ein zeike**

**Zelan? Sur gorri bat ipinitte**

**Kalien eskeiniko dotzugu**

**Azaldu zure borondatie ARATZen alde**



**Surgorriak**



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

**LAGUNTZA: 100 pezeta eta borondatea**



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Legedailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

# Loramendi literatur lehiaketako sariak joan den astean eman ziren jakitera



Loramendi euskara elkarteak VIII. Loramendi literatur lehiaketako sariak banatu zituen joan den astean. Danera 208 lan aurkeztu zituzten herriko neska-mutilek. Horietatik kopuru haundiena Lehenengo Hezkuntzako 2. ziklokoak izan ziren: 102 lan; 59 ipuin Lehen Hezkuntzako zikloan; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 45 partehartzaile egon ziren eta 15 urtetik gorakoetan berriz lan bi bakarrik aurkeztu ziren.

Sari gisa, herriko liburudendetan aldatu ditzaketen baleak lortu zituzten irabazleek. Hona hemen irabazleak:

**Lehen Hezkuntzako 2. zikloa: (102 lan)**  
*D ereduan*  
 1.go saria: **Nerea Cabello**: "Euskara salbatzeko zoritxarreko txekleak"  
 2. saria: **Nerea Gil**: "Hartza eta untxi-enbidioso"  
 3. saria: **Jaione Oianguren**: "Elur artean galduta"  
*B ereduan*  
 1.go saria: **Nerea Crespo**: "Errege Magoak"  
 2. saria: **Alicia Rodrigez**: "Banpiroa"  
 3. saria: -----

**Lehen Hezkuntzako 3. zikloa: (59 lan)**  
*D ereduan*  
 1.go saria: **Itsaso Pagoaga**: "Amorotarrak laguntzaile bila"  
 2. saria: **Aiora Padilla**: "Nire istorioa"  
 3. saria: **Uxue Eraña**: "Garbitxu ur tantakaren istorioa"  
*B ereduan*  
 1.go saria: **Leire Lozano**: "Hartzaren askatasuna"  
 2. saria: **Mirian Duran eta Vanesa Gonzalez**: "Zilarrezko larrosa eta hiru probak"  
 3. saria: **Mari Carmen Algaba**: "Andoniren abentura"


**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1.go zikloa: (45 lan: 34 ipuin eta 11 poesia)**  
*D ereduan ipuinetan*  
 1.go saria: **Maitane Barrenetxea**: "Ametsen lurraldea"  
 2. saria: **Mirian Sanchez**: "Betaurreko magikoak"  
 3. saria: **Leire Otaegi**: "Kristalezko euri-tanta"  
*poesian*  
 1.go saria: **Idurre Arbulo**: "Negua datorrenean"  
 2. saria: **Nagore Agirre**: "Txingurriak"  
 3. saria: **Arantazu Arietaleanizbeaskoa**: "Nire izar dizdiratsua"  
*B ereduan ipuinetan*  
 1.go saria: **Hodei Somé**: "Jonen abenturak"  
 2. saria: **Jone Povo**: "Limoi txiki"  
 3. saria: **Lorena Alvarez**: "SIDA"  
*poesian*  
 1.go saria: **Jairo Santiago**: "Aretxabaleta"

**15etik 18 urtera bitartekoak: (2 lan)**  
*D ereduan*  
 1.go saria: -----  
 2.go saria: **Mireia Valle eta Leire Blazquez**: "Nahigabeen egina"

*Okindegia - Gozolegia*  
**Aretxabaleta**  
 Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81  
 Aretxabaleta  
 Bertako okina

**ZARAIA TABERNA**  
 Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan  
**MANTEKA ANAIK**

**ESKORIATZA**  
 Tfn 714345  
**ERRETEGIA**  
 Bazkari eta afariak  
**MENDIOLA**  
 Astelehenetan itxita  
**ESKORIATZA**



Aretxabaletako udaletxea eta eliza brontzezko irudian izango da emango den saria

## Norentzat izango da “Aretxabaleta saria 96”?

Aretxabaletako Udalak iazko urteko pertsona/talde nabarmenenak sarituko ditu datorren otsailaren 15ean.

Saria banatzerako orduan, kontutan hartuko dira, urtean zehar egin den lana, esfortzua eta kanpoaldera Aretxabaletaren izena zabaldu izana. Oraindik saria nork edo nortzuk jasoko duten ez da pentsatu. Dagoeneko zerrenda bat egina dago baina aukeraketa ez da lan erraza izango.

Aurten honelako sari bat ematen den lehenengo aldia da baina, hemendik aurrera urtero urtero errepikatuko da. “Aretxabaleta saria” izena izango du eta urte berriaren hasieran emango da.

Esandako moduan, saria otsailaren 15ean banatuko da udaletxean goizeko 11,30etan.

## Aretxagazetako batzar orokorra

Urtero moduan Aretxagazetako batzar orokorra egingo da datorren otsailaren 14an. Batzarrean, 1996eko balantzea, aurrekontuak, memoria, 1997rako dauden asmoak eta batzorde berrizketaren berri jakitera emango da. Esandako moduan, otsailaren 14an izango da udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7,30etan. Bazkide guztioi gonbidapena luzatzen zaizue.

## Biokonstrukzioari buruzko hitzaldia

Loramendi Elkartearen eskutik biokonstrukzioari buruzko hitzaldia izango dugu datorren otsailaren 19an Loramendi elkartean.

Josu Jauregik, GEA, Euskal Herriko Geologi Aztertzaile elkarteko arduraduna, zientzia honen inguruan berba egingo digu. Bereziki, bizi garen lekuak eta norbere osasunak duten lotura zuzenaren inguruan.

## Makilaje ikastaroa

Loramendi Elkarteak makilaje ikastaroa antolatu du. Otsailaren 18 eta 20an emango da arratsaldeko 3etatik 4,30etara bitartean (ordutegia alda daiteke). Etxeandia aizpak izango dira ikastaroa emango dutenak eta etxean egiteko makilajea, hau da, oinarritzkoa erakutsiko da.



# LASAGABASTER

**Zure Konfiantzazko Denda**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

## G U R E A

taberna  
jatetxea

Durana kalea  
Tfnoa: 79 20 64



Zenbaki

## Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

# Ongi etorri aratusteak

Gaiean ditugu aratusteak. Gure herrian horren preziazatua den jai eguna. Aurten sekula baino lehenago heldu direla eta mozorroa gertatzeko estu dabilela dio jendeak. Baina ziurrenik urtero moduan, mozorro originalak eta ikusgarriak izango ditugu aratuste domekan. Egun honetan lotsak alde batera uzten dira eta koadrilak mozorrotutakoaz identifikatzen dira, zein baino zein ikusgarriago. Batzuk urrunago ere joaten dira eta desfileaz gain antzerkiak ere egiten dituzte, herritarrek egun honetan jartzen duten ilusioa eta gogoia agerian jarriz.



## Gehien nabarmentzen direnentzat sariak:

Aurten ere Udaleko kultura sailak emango du saririk gehien nabarmentzen diren koadrilentzat. Nagusietan esaterako lehenengo saria, 35.000 pezetakoa izango da; 2.a 25.000; 3.a 15.000 eta 4.a 10.000 pezetakoa. Gazteetan, 16 urtetik beherakoetan, 15.000 pezeta jasoko ditu lehenengo sarituak, 2.ak 10.000; 3.ak 7.000 eta 4.ak 5.000 pezeta.

Egun honetan nahikoa izaten dira herriko koadrilak giroa sortzeko. Hala eta ere, datorren domekan Gazteleku txaranga ere gurekin izango dugu. Honez gain, eguerdiko ordu batetan **Txino dantza** eskainiko digute herriko hainbat mutilek. Atxabaltarron artean aspalditik datorren ohitura da Txino dantza.

Martizenean, ikastoletako irakasle eta ikasleak eta herriko dendariak izango ditugu protagonista, eurak izango baitira giroa sortuko dutenak. Dana dala, Incansables txaranga ere gure artean izango dugu. Gauean, aratusteei amaiera emateko herria lutoz jantziko da txinoaren hileta dela eta.



## T x i n o   d a n t z a

Antigualetik datorren dantza honen ezagutza ziurrik ez dugu. Batzuren ustetan aintzinako ikazkinak menditik jeisten zirenean jaio zen usadioa eta horren adierazgarri dira, dantzatzeko jazten den linozko soineko luzea eta aurpegi-muturrak beltzez pintatzeko ohitura. Beste batzuk txino dantza zerriekin lotzen dute; txino zerri apoari deitzen zi-

tzaion garai batean gure bailaran.


Zenbait dokumentutan agertzen denez, 1934. urtean Santa Ageda mutilak dantza egiten zuten. Gero berrogei urtez desagertuta egon zen, 1946. urtean Loramendi dantza taldeak berreskuratu zuen arte. Antza denez, aratuste domekan beharrezko aratuste martizenetan datza-

◆ Parrila  
espezialitatea



### GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57



### EGUZKIGRAF

inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

# Santa Ageda mutilak



**Santa Ageda mutilak** entsaiatzen harrapatu genituen joan den zapatuan. 78 an jaiotakoak ditugu aurten kinto eta guztira 50 inguru dira. Martizenean baserrietan eta Santa Ageda egunez kalean egin zuten batzea. Horretarako jakina, ezarriak ondo berotuta ibili ziren ezagunak diren kantuak abesten. Ohiturari jarraituz eguazten arratsaldean banakoa dantzatu zuten plazan eta usadio zaharrei jarraituz azkenezgoz datorren domekan dantzatuko dute osterara ere. Aurtengoek motza dute Santa Ageda egunetik aratusteetara bitarteko tartea eta bitan bakarrik dantzatuko dute plazan banakoa.

## “Ilusio eta gogo haundia dugu aurten kinto izateko”

• Garikoitz Barbero eta Iñaki Elorza •

**Zer sentitzen da aurten kinto izan behar duzuela eta?**

**Garikoitz:** Ilusio eta gogo haundia. Bizitzan behin izaten da kinto eta izugarritzko ilusioa daukagu.

**Entsaio asko egin dituzue?**

**Iñaki:** Bai, gabon ostein hasi ginen entsaiatzen eta nik uste dut ganore askokin ibili garela.

**Irakasle onak izan dituzue?**

**G:** Bai. Entsaio denetara etorri dira eta asko lagundu digute. Pazientzia haundia izan dute gurekin.  
**Zer da zailena?**



**I:** Entsaioetan askoz ere musika azkarragoaz ikasi dugu dantzan eta orain txistulariek polikiago jotzen dute eta musikaz batera dantzatzea eta ritmoa eramatea zaila da.

**Aurten bi alditan bakarrik tokatzen zaizue dantzatzea...**

**G:** Bai, hori pena bat da. Beste urte batzutan domeka

gehiago izaten dira dantzatzeko. Baina hori bai, ditugun egunak ondo aprobetxatuko ditugu.

**Desafioa dantzatuko duzue?**

**I:** Nik bai.

**G:** Ez, nik ez dut dantzatuko.



*Zubia*

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

## “Sahararako Euskal karabana 97”

- ❑ Kanpaina honen helburua Sahararako herriarentzat 50 tona atun lata batzea da
- ❑ Kurtzebarri edo Almen ikastetxeetan utzi daitezke atun latak



1975etik Saharar Herriaren populazioaren zati haundi bat Tinduf (Algeria) inguruko hammadanem bizi da erbesteratuta

“Sahararako Euskal karabana 97” proiektua Euskal Herriak Saharar herriarekiko elkertasuna adierazteko bide bat da. Saharar Herriaren egoera zabaldu eta kanpamenduetako errefuxiatuei laguntza materiala bidaltzeko.

1975etik Saharar Herriaren populazioaren zati haundi bat Tinduf (Algeria) inguruko hammadanen bizi da erbesteratuta. Bertan kanpamenduak antolatatu zituzten eta gaur egun saharar errefuxiatuak lau kanpamentu edo wilaya haunditan banatuta daude. Ordutik 22 urte pasa direnean gauzak ez dira asko aldatu eta Saharar Herria beste herrien elkertasunari esker bizi da.

### Zergaitik karabana bat?

Saharako gizon emakumeek basamortuan bizirik irauteko behar dituzten gauzak karabanen bitartez bidaltzea nahi da. Euskal Herriko lehen karabana

1990ean egin zen eta ordutik beste batzuk ere egin dira eta ehundaka tona atun bidaltzea lortu da.

Karabana honetarako Euskal herrian eskuratzeko erraza eta saharaui herrirako aproposa den elikagaia aukeratu dute: atuna hain zuzen ere. Helburua 50 tona atun jaso eta karabana baten bitartez hara bidaltzea da.

Bi eratara lagundu daiteke: alde bate-tik laguntza ekonomikoa emanez, horretarako diru sarrerak karabanaren kontu honetan eginez: (Lankide Aurrezkia 3035 0060 40 0600071286) edo eta bestela atun latak batuz. Kasu honetan Kurtzebarri edo Almen ikastetxeetan utzi daitezke atun latak. Atuna oliotan kontserbatutakoa izan beharko da eta 250-300 gr. tarteko latetan.

Saharar herriari laguntzeko denok eman dezakegu zerbait, laguntza bat ez da inoiz txikiegia izango.

## Igor Dublan 1500 metrotan txapelkun

Pasatu den zapatuan Gipuzkoako estalitako pistetako 1.500 metroko txapelketan irabazle izan genuen Igor Dublan. Domekan berriz, Euskadiko kross txapelketa burutu zen Gasteizen. 250 lagunek parte hartu zuten bertan eta Igor 34. postuan helmugaratu zen.

## Joseba Larrinaga Algarbera

Datorren astebukaeran Algarbera Portugal aldera joango zaigu Joseba Larrinaga bertan egingo den kross internazionalen partehartzeko. Atlantara joan ziren Paraolimpiko guztiak elkartuko dira bertan.

## Igeriketa eta aquagym ikastaroak

Igeri ikastaroan apuntatu nahi dutenentzako epea zabalik dago. Ikastaroa hasieratik hasi nahi dutenentzat eta baita hobe-tze mailarako ere izango da. Otsailaren 3tik aurrera berriz, aquagym ikastaroa hasiko da. Aquagyma zertan datzan jakin nahi duten pertsona guztiak sesio bat dohainik egiteko aukera izango dute. Informazio gehiagorako eta baita izena emateko kiroletxean egin daiteke edo eta 79 64 61 telefonoan.

**Aretxabaletako  
industrialdea, S.A.**

**“ARINSA”**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA

**Dorleta  
Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
ARETXABALETA

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



**JOSE MARI**  
bodegoia

- < Eguneko menua
- < Bataioak
- < Jaurnartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45  
ARETXABALETAK


**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETAK



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektragailuak  
Elektra-instalaketak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

# Kutsatzaile berri bat begibistan

Aspaldi honetan gure bailarako jendearen ahotan hainbat makro-proiektu aditzen da. Abiadura haundiko tren, Urbina-Maltzaga autopista, Kurtzebarri osteko parke eolikoa, Deba ibaiko uren kanalizazio eta garbiketak, Aizkorriko parke naturala,... Artikulu honetan, hauetako bati buruz hainbat iradokizun burutu nahi nituzke.



Ez da urte gehiegi pasa gure herri-etan sahiesbideak (barianteak) eraiki zirenetik. Bide hauen helburua herri barneko auto kopurua murriztu eta herrien arteko harremanak azkartzea izan zen eta kasu gehienetan bete da asmo hori.

Baina momentu honetan daukagun bariante sistema ez omen da nahikoa eta argumentu hori ahotan hartuta Gipuzkoako Diputazioak autopista bat eraiki nahi digu, Maltzagatik Urbinaraino luzatuko litzatekeen bide zabal, azkar eta polita proposatu digularik.

Autopista honi esker gure bailararen ekonomiak gora egingo duela entzun dut. Ez dakit zenbateraino beteko den igarkizun hori, baina ez noa horren inguruan komentariorik egitera, ez bait naiz horretan batere jaioa.

**Kutsaduraren sortzaile**

Nire gaia natura da eta zoritxarrez badakit errepide erraldoi honek kalte latzak eragingo dizkiola gure bailarako izadiari. Proiektu honek (eraikitzean eta baita erabilgarri izango denean ere) kutsadura handia ekarriko digu. Alde

batetik kutsadura akustikoa jasan behar-ko dugu, bestetik kutsadura optikoa ere nabaria izango da, baina agian guztietan larriena gure osasunari eragingo dion kutsadura da.

Aretxabaletak jasango du ziurrenik azken kutsadura honen eraginik haundiena, izan ere, errepideek ezker-eskuma inguratuko bait gaituzte, mendebaldean autopista eta ekialdean oraingo sahiesbidea. Denbora pasa ahala konturaturako gara bai gure osasunak behera egingo duela.

**Bailara kutsatzen bizi gara**

Autopista, egia esan ez da gure bailarak bizi duen kutsadura mailaren beste eragile bat baino izango. Lindanea (kantzer sortzailea), errauskailu edo intzineradora, kaleetako zikinkeria, industrietako gas ihesak, errepideetan autoen gasak, ibaia ere kutsatuta...

Horrela, (edo okerrago) bizitzen jarraitu nahi al dugu? Gure esku da g o .

Mikel Arroiabe


# Herriko ermittak (1)

**Gaur egun hiru ermita daude Aretxabaletan, Arientzako San Vicente, Sailuenteko San Blas eta Santutxo. Garai batean gehiago ere baziren. Horren berri hurrengo alean izango dugu.**

Azken hamabost egunetan atxabaltar fededun eta ohitura jarraitzaileek bete dute aurtengo euren erromes kuota, Atxabaltan gelditzen diren hiru ermittatik biri bisita eginaz.

**O**hitura, Arientzako S. Vicente ermittan hasten da, urtarrilaren 22an. Tontortxo baten kokaturiko eraikuntza txiki hau, artez eta pinuz inguratuturik, bertako majikotasuna sentituz bisita dezakegu. Auzoko kanposantua, elizatik urrun, bertan kokatu zuten XIX. mendearen bukaeran. Ordurarte, urteetan zehar ospa haundiko ermita izan zen. Jadanik XVI. mendean ba da aipamenik. Dokumentu berean S. Juan izeneko ermita ere agertzen da; azken hau XVIII. mendean desagertu zen. S. Vicente-koak kanposantu bihurtzeko aukera izan zuen sikera. Areantzako S. Vicente-a IV. mendeko S. Vicente martiria da; Daciano erromatar enperadorearen garaian hil zutena. Egutegietan, egun berean agertzen dira S. Vicente, martiria, eta S. Vicente Ferrer, hau XIV-XV. mendean bizi izan zen. Ermita barruan ikus dezakegun S. Vicente-a oso taila ona da, auzokoen laguntzaz eraberritua. Ermita bera, egoera kaxkarrean aurkitzen da, baina aurki konponduko dute.

Aretxabaletako baserri auzune inguru hau utzi eta Deba erre-



Aretxabaleta eta inguruetan gaur egun dauden ermitak



Arientzako San Vicente ermita tontortxo baten kokatzen da, pinuz inguratuturik. Auzoko kanposantua, elizatik urrun, bertan kokatu zuten XIX. mendearen bukaeran. Ordurarte ospa haundiko ermita izan zen, XVI. mendean bada ermita honen aipamenik

karen bestaldera joko dugu, beste tontor majiko eta berezi bate-tara Sailluentera hain zuten ere.

S. Lorenzo/S. Juan/S. Blas. hirurak batean bildu daitezke. 1993an eraberritutako ermittan aipagarriak dira bere sarrera (erromaniko berantkorra) eta aldareko S. Blas. (Leizabaletik ekarritakoa?).

Jendeak aspaldiko partez janariak bedeinkatzera joaten da otsailaren 3an, S. Blas egunean, eztarriko gaixoak sendotzeko aipatzen da eta. "Doministiku"-a entzunaz bat, botatzen den lelo zaharra eta jatorra: S. Blas! da.

Baina S. Blas ospatzen bada, guk jaso dugun dokumenturik zaharrean "ermita de S. Juan que antes fue parroquia" dio.

Baina eta zaharrago deritzogu euskal jendearen gomuta. Bertakoen esanetan izen jatorra "Sailluente" da.

Sailluete, S. Laurentis/S. Lorenzo izenaren deformazio bat da. S. Laurentis, III. mendean bizi izan zen eta jendeak euskeratu egin zuen izena. Noiz? kontuan hartzen badugu latinetik gaztelaniara eman ziren eraldaketa fonetikoak XI-XII. mendetarik aurrera eman zirela, seguru asko handik aurrera Sanlorentzo izango zen gure ermita, baina ez, Sailluente da; beraz zergatik ez bota X. mendera lehen eraikuntzaren data? Ziortza ba zegoen, zergatik ez Sailluente?

Hau irakurri ondoren bertara zoaztenok fija zaitezte lurreko lau harlosa landuetan; inguruko baserriko hilobiak izango ziren. Gaur egun hutsik daude. Eraberritze lanetan gurutze margotuak agertu ziren paretetan, eta gizaki hezurak ondo



*Herriaren sarreran dugu Santutxuko ermita, 1994an berriztua. Ez du balio artistikorik. Aipagarriak dira bere parean dagoen gurutze-bidea eta alboko harrizko prisma.*

zelaian (kanposantua). 1936-39 bitartean, gerra zibil garaian, soldadu frankisten kanpamendu izan zen.

Bertan bizi zen paarra (pa-darra: ermita eta santu zain-tzailea), S. Lorentzo txiki bat eskuetan zuela, Arabako lurretatik zehar ibiltzen zen limosna bila, bere mantenurako eskatuz. Halako batetan, Elgeako baserri baten larrinean honela erantzun zion bertako etxeoandreak: "Aizu! urtero urtero etorri beharrean, ez duzu hobe santu hori bertan uztea? Neuk emango diot jaten!"

Eta bisitagai diren ermitten artean, kalean, herriaren sarreran dagoena falta zaigu: Santutxo. 1994an berriztua hau ere. Ez du balio artistikorik. Aipagarriak dira bere parean dagoen gurutze-bidea eta alboko harrizko prisma. Bertan jartzen zen hilobiratu behar zen zerraldoa erreponsoa errezatu bitartean, eta gero... Errotetxetik gora.

Ermittak Gurutze Santuaren adokazioa duenez, meza ematen zen egun horretan, irailaren 14an. Ohi-tura hau, 15 bat urte dela galdu zen.

Hurrengo Aretxagazetan gaur egun existitzen ez diren baina garai batean gure arbasoek ezagutu zituztenak aipatuko ditugu.



*1993an eraberritu zen Sailluenteko ermita. Jendea aspaldiko partez bedeinkatzera joaten da otsailaren 3an, San Blas egunean.*

Aitor Antxia Leturia

**Mitartegarai**  
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51  
ARETXABALETA

Pelikularik hoberenak

**DON BIDEO**

Lezama Merkatal zentrua  
ARETXABALETA

**LEIBAR**  
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA

Aita harotza zuen eta badirudi horrek arrastoa utzi zuela Imanolengan. Umetan ikusi zuen aita egurra lantzen eta bere baitan gordeta ekarriko balu bezala, orain urte batzuk tailagintza probatzeko gogoia eta aukera etorri zitzaion.

Jose Ugarte maixu zuela eman zituen lehen pausuak egurrean eta baita gustoa hartu ere. Orduetik egin ditu lantxo batzuk, etxerako gehienbat.

Gaur egun, Okila, taila elkarteko partaide dugu Imanol Aranzabal bergararra.



## Imanol Aranzabal: “Egurrezko tailan pazientzia, gogoia eta gusto apur bat behar da”

• Imanol, nola sortu zitzaizun egurra lantzeko afizioa?

Aita harotza nuen. Berekin urte gutxitan bizi izan nintzen baina nire aitak egiten zuena gustatzen zitzaidan. Gero orain 5, 6 bat urte nik ere egurra lantzen hasi behar nuela pentsatu nuen. Aukera etorri zitzaidan eta Jose Ugarterekin hasi nintzen egurra lantzen.

• Eta hasi eta gustatu egin zitzaizun?

Bai, nire ezaugarri batzuekin bat zetorrela ikusi nuen eta gustora ekin nion.

• Zein ezaugarri esa-

terako?

Egurrezko tailagintzan, pazientzia, gogoia eta gusto apur bat behar dira besteak beste.

• Ze motako lanak egin dituzu orain artean?

Egia esan ez ditut taila asko egin. Normalean taila geometrikoa landu izan dut eta etxerako lanak egin ditut, komoda bat, kutxak, altzariak...

Momentu honetan

geometrikotik aldentzen den zerbait daukat buruan, Ama Birgina baten irudia.

• Normalean norentzat egiten dituzu tailak?

Normalean etxerako, baina beti egoten dira konpromiso batzuk ere. Saltzeko sekulan ere ez.

• Zein prozesu jarraitu behar da egurrezko taila bat egiteko?

Lehenengo zer egin nahi duzun pentsatu behar da. Gero egur mota aukeratu

eta papereko marrazkia egurrera pasatu. Hau egindakoan, erramintekin hasten da lanean eta azkenik bukaera emango zaio.

• Prozesu horretan zer da zailena?

Zer egin nahi duzun pentsatzea. Behin pentsatuta gero teknika bat jarraitu behar da. Baina guzti horren aurretik zer egin pentsatzea izaten da zailena.

• Zein egur mota erabiltzen da normalean?

Fruita arbolen egurra oso ona izaten da. Hemen haritza asko erabiltzen da eta baita pagoa ere. Niri geriza gustatzen zait, tonogorrixka du eta denborarekin gainera oso tonopolita hartzen du.

• Taila ikastea gura duen bati zer esango zenioke?

Ikastaro bat egiteko. Hasiera baten behintzat pauso batzuk eta teknika batzuk ikasteko egokiena da. Horretarako Okila elkarteak urtero antolatzen du ikastaroa, irailean hasi eta abendura bitartean. Normalean hasten direnei gustatu egiten zaie. Orain artean behintzat arrakasta haundia izan dute ikastaroei. Bukatutakoan nahi izanez gero Okila elkartean jarraitu dezake egurra lantzen.

**BP** Amaia-Berri, S.L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

**DOIKALSE**

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

# Kantari bikainak herrian



Ekaitz Oiangurenek irabazi zuen abeslari onenaren saria

## Aretxabaletan grabatutako Euskaraokea Otsailaren 17ko astean astelehenetik eguakotxera bitartean botako dute ETB 1ean arratsaldeko 8etatik 8,30etara bitartean

Herriko gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek ere kanturako duten abilezia erakustera eman zuten Euskaraokean. Lotsak alde batera utzi eta *Iñaki zein urrun dagoen Kamerun, Mexiko, Salda bero-beroa, Nirekin, Arratsalde honetan* eta beste hainbat abestiri ahotsa jarri zioten. Zein baino zein pozago ibili ziren.

luzatu zen grabazioa. Hasiera baten arazotxo batzuk ere izan ziren eta hori dela eta batzuk bi bider kantatu behar izan zuten.

Umeak bezain ondo kantatu zuten herriko nagusienek ere, Bego Lekunberri, Xabier Lazpiur, Igor Arenaza eta Ibon Errasti izan ziren herriko kantoreak.

Ekitaldiaren bukaeran ARATZekoak igo ziren gora eta hauek ere kantatzeko aukera izan zuten.

Eszenarioara igo zuten guztiek meritu galanta izan zuten, bikain ibili zirela esan behar da. Hala eta ere, herriko kantari onena Ekaitz Oianguren izan zen, saritzat entzuteko katai txikia irabazi zuen.

Arratsaldeko 5,30ak pasatxo zirenean ekin ziren programa grabatzen eta ia gaueko 9ak artean

**LASA AGUILERA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK


Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**MEMESA S.L.**

*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABAleta



## “Beti azkenengo momentuan pentsatzen dut mozorroa”

Datorren domekan aratusteak ditugula eta Jabier Iturberengana jo dugu. Jabierrek gogoko ditu aratusteak eta beti mozorro bitxi batekin agertu izan zaigu kalean. Aurten go urterako oraindik ez ei du ezer pentsatu, baina azkenengo momentuan zeozer bururatuko zaio.

• Nondik datorkizu mozorrotzeko afizioa?

Beti gustatu izan zait aratuste egunez sortzen den giroa eta baita mozorrotzea ere.

• Zein mozorro duzu gogoan?

Monja jantzi nintzenekoa, arrakasta haundia izan zuen.

• Zertaz gehiago mozorrotu zara?

Pantera arrosa, indioarena zaldi eta guzti, sumarinista...

• Bakarrik jazten zara?

Bai, normalean bai.

• Denbora asko pasatzen duzu mozorroa gertatzen?

Ez, normalean azkenengo orduan pentsatzen dut zertaz mozorrotu.

• Eta aurten go urterako baduzu ideiarik?

Ez, oraindik ez. Baina oraindik ez dut behin ere hutsegin. Sorpresa izango da.

• Oraindik mozorrotzea lortu ez duzun mozorro gustoko bat?

Mexikano, baina abeslari, “ranxerak” abesten dituztenak. Egunen batean beste lagun batzuk bilatuko banitu mexikano jaztea gustatuko litzaidake.

• Zergaitik gustatzen zaizkizu aratusteak?

Egun horretan oso ondo pasatzen dut. Mozorrotutako pertsonaiaren barruan sartzen zara eta hori da

politena.

• Zer iruditzen zaizkizu herriko aratusteak?

Benetan onak. Beste aratuste batzutan ere izan naiz, gure herrian giro oso ona sortzen da aratuste egunez.

• Castron jaiotakoa zaitugu. Zelan etorri zinen Aretxabaletara?

Bi urtekin etorri nintzen Arrasatera. 20 bat urte egin nituen Arrasaten eta gero Aretxabaletara ezkondu nintzen.

• Nora joango zinake oporteratan?

Hondartzara ez behintzat. Animaliak dauden leku batetara, Afrikara, Indiara... baita Mexikora ere.

• Etxean zein lan egiten duzu?

Ezertxo ere ez.

• Zer eskatuko zenioke gaur egungo gizarteari?

Aldamenekoari baketan uztea. Bakoitzari nahi duen modukoa izaten uztea.

• Afizioak...

Ehizan egitea.

• Joaten zara ehizan?

Bai, iaz urrian hartu nituen oporrak ehizan joateko.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Egia esan ez daukat lotsa haundirik.

## Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arriobe

loramendi  
euskera elkarte



endiolako Santa Ageda mutilak ditugu kasu honetan argazkian. Santa Ageda bezperan auzoko mutilak baserri-baserri kantuan eta eskean joateko elkartzen ziren (Mendiola eta Arkarazokoak batera normalean). Orain ute batzuk arte auzokoek auzoetan eta kalean bizi zirenek kalean batzeko ohitura zegoen.

Baserrietako atarian, Santa Agedaren bizitza eta heriotzaren inguruko bertsoak abestu, eta ordainez, txorizo, arraultza, odoloste eta mortzilak (txarria hilberri bazen) eta batzutan dirua ere jasotzen zuten. Ezer ematen ez zuenarentzat ere bazegoen zer kantatu. Honela zioen kantuaren bukaerak: "... arkakosua jango dau/etxe hontako atsoa." Bitxia benetan.

Eskoriatzako auzoa izan arren, Arkarazo, Arientza, Korueta, Azatza, Boliña eta nozpait Larrinoko baserrietan ere egiten zuten batzea. Alderantzizko kasuan ere, Aretxabaletako auzotarrak Mendiolarako joateko ohitura zuten. Baserrietan batutakoaz afari ederra egiten zen egun horretan, normalean auzotar baten etxean, askotan Olabenean.

Santa Ageda egunez berriz Eskoriatzara jeisten ziren. Santa Ageda eguneko dugu hain zuzen ere goiko argazkia, 1948. urte inguruan Eskoriatzako plazako eskilaretan ateratakoa. Usadioari jarraituz, fraka "mil rayas"ak, alkondara laukiduna, gerrikoa eta txapel gorria janzen ziren. Makila ere beti aldean, baina kantatzerako orduan ez zen makilakadarik ematen.

Argazkikoak goian ezkerretik eskumara: **Esteban Lete, Jose Mari Arenaza, Luis Arando, Jose Arkauz, ezezaguna, Agustin Iturbe, Benito Arriola, Jacinto Iturbe, Francisco Arriola, (akordeoilaria kanpotarra), Karlos Aldai, Juan Arenaza, Kludio Arriola, Jose Mari Gaztiasoro.**

Argazkia: Naiara Arrese

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta  
mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



## KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

## OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60  
Aretxabaleta

# Egun berezia



Rutinaz beteta dagoen gure eguneroko bizitzan, benetan eskertzen dira noizean behineko aldaketak, hau da, egun bereziak. Gure herrian aratuste domeka duda barik egun berezia da; kalean gustora egoten den horietakoa. Beraz animatu, jantzi mozorroa eta ondo pasatu.

**Xabier Lapiur** pozik agertu da Jabier Madariaga, Euskal txirrindulari Federazioko lehendakariak eskaini dion karguaz. Ez du denbora asko egin txirrindularitza mundutik kanpo eta bera izango da aurten Euskal Federazioko afizionatu mailako selekzionatzailea. Zorte ona opa diogu.

**Murrukixoko** batzordekide berriak, eta ez hain berriak ere animoso agertu dira. Lehendakari berria **J.J. Irure** izango da eta batzordekideak: **Oier Etxebarria, Oier Aranzabal, Felis Beltran de Heredia, Joseba Gonzalez** eta **Alberto Etxebarria** dira. Itxura baten emakumeok ez dugu errepre-

sentazio haundirik izango.

Andoni Aizpuruak aurkezten duen Bertatik Bertara saioaren hileko zozketa **Olaia Etxenagusiak** irabazi du. Hori bai zortea, telebista eder bat esku-ratu du.

Telebista kontuekin jarraituz, aurreko astean plaza bete-bete egin zen Euskaraokea ikus-entzuteko. Bertan parte hartu zuten ezagunak hauek izan ziren: **Bego Lekunberri, Igor Arenaza, Xabier Lapiur, Ibon Errasti** eta **Aratz taldekoak**. Batzuk edarto moldatu ziren beste batzuk ez hain ondo, baina benetan bikain ibili zena **Ekaitz Oiangueren** izan zen. Sari nagusia eraman zuen. Entzun dut korokoak fitxatzeko asmotan dabilzala.

Santa Ageda pasatu da eta datorren domekan azkenengo dantza saioa eskainiko digute **Santa Ageda mutilek** plazan. Aurten lau mutiko izango dira nagusiekin batera dantzatuko dutenak: **Beñat Zamalloa, Joseba Arrese-igor, Eñaut Kortabarria** eta **Martin Antxia**. Hauek gazte gaztetatik hasten dira.

Eta Santa Ageda mutilekin jarraituz, gauza kurioa honakoa, Santa Ageda mutilei nork erakutsiko dantzan eta neskak. Kasu honetan **Iratzeder Iturri, Eki Usandizaga, Igone Zaloña** eta **Arantzazu Martinezek** izan dute ardura hori. Honekin dana esanda dago.

Bueno eta ez dut ezer gehiago esango, bestela Irunen eta Hondarrabin moduan hasiko gara eta.

A R E T X A Z O K A

## LANA

- Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.
- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauz. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

## ETXEBIZITZA

- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.
- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.
- Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

## DENETARIK

- Urrezko kataia bat aurkitu zen abenduan. Deitu 79 01 05 telefonora.
- Palestinar painuelo bat agertu da kultur etxean. Jabea pasa dadila kultur etxetik hartzen. Eskerrik asko.

- Lur hiztegi entziklopedikoa salgai dago, estrenatu barik. Tfnoa: 79 78 26. (goizez 10etatik ordu 1etara, arratsaldez 4etatik 9etara).
- Opel Ascona markako kotxea salgai. Ate bikoia, egoera onean eta prezio ekonomikoan. Tfnoa: 79 43 05.

**Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**





## MIS DOBLES, MI MUJER Y YO

**EEBB, 1996**

**AKTOREAK:** Michael Keaton (Doug Kinney), Andie McDowell (Laura Kinney), Harris Yulin (Owen Leeds doktorea), Richard Masur (Del King), Eugene Levi (Vic), Ann Cusack (Noreen).

**ZUZENDARIA:** Harold Ramis.

Doug Kinney oso lanpetuta dago, ez daki astebukaera bat libre izatea zer den. Bezero batek, genetikan adituak, Kinneyren egoera ikusita konponbide bat eskaintzen dio. Bere ordezkari lanera joango den klon bat sortuko du.

“Mis doubles, mi mujer y yo” erritmo biziko pelikula da, komedia barregarria. Michael Keatonek duen onena eskaintzen digu. Irudimenez beteriko gidoia da, fisikoki berdinak eta izakera desberdina duten lau pertsonari aurre egitea.

Efektu bereziak ia perfektuak dira (planu berean bi, hiru eta lau Keaton ere ikusi daitezke) baina komedia guztiaren gainera dago. Kasu honetan efektu bereziak pelikularen zerbitzura daude.

### Z A R A I A Z I N E M A

Otsailak 14, 15, 16, 17

#### MIS DOBLES, MI MUJER Y YO

Otsailak 16 (Umeentzat)

#### SARGENTO BILKO

Otsailak 21, 22, 23, 24

#### SLEEPERS

Otsailak 23 (Umeentzat)

#### FLIPPER

#### **Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30


10,15

Astlehena: 10,15

#### **Oharra:**

Datorren astebukaeran aratusteak direla eta ez da zinerik egongo.

## ESKULANAK



Titulua:

**Nere eskulanak bilduma**

Idazlea:

**Sabine Lohf**

Argitaletxea:

**Elkar, 1990**

**B**ilduma honetan haurrekin eskulanak egiteko proposamen batzuk egiten zaizkigu material desberdinak erabiliz. 10 tituluk osatzen dute bilduma eta bakoitzak materiale desberdin bat erabiltzen du: batean egurra, bestean kortxoa, plastilina, hostoak, papera eta abar.

Oso eskulan errazak dira, haur txikiekin egiteko modukoak (bi urte ingurutik aurrera heldu baten laguntzarekin) eta edozein etxetan aurkitu daitezken materialak erabiltzen dira. Liburu hauetan eskulanak egiteaz gain jolaserako bidea ere zabaltzen du egileak eta haurren irudimena lantzeko ere egokiak dira.

Joseba Lopez de Armentia

## OSKAR

HARATEGIA  
Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

## Artano Taberna

Herriko Plaza  
ARETXABALETA

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Jauregi  
Okindegia**



Otalora, 10  
Aretxabaleta

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**OPEL**

- **Kotxe marka guztien konponketak**
- **Zerbitzu guztiak**

**Garaje T. NORTE, S.L.**

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABALETA

**OTSAILA**

**6**  
eguna

**HITZALDIA**

“ZATOAZ EZAGUTZERA” kanpainaren barruan derrigorrezko hezkuntzari buruzko bilera informatiboa Almen ikastolan. 17,45etan euskaraz eta 19,00etan erderaz.

**ZINEA**

Arrasateko Amaia antzokian “Jonas y la ballena rosada” filmea egongo da ikusgai, gaueko 9,30etan.

**8**  
zapatua

**FUTBOLA**

**UDA-UPV**

Arratsaldeko 4,30etan Ibarra.

**ARETXABALETA-INDAUTXU**

Euskal liga jubenila arratsaldeko 6,30etan Ibarra.

**“SABADO REGULAR VIII. PLAY  
BACK JAIALDIA”**

Arrasateko Amaia antzokian gaueko 10,30etan.

**9**  
domeka

**ARATUSTEAK**

Egitarau berezia

**11**

martizena

**MARTIZEN ARATUSTEA**

Egitarau berezia

**12**

eguztina

**ARRASATEN EUSKARAOKEA**

Herriko plazan arratsaldeko 5,30etan.

**13**

eguna

**HITZALDIA**

“ZATOAZ EZAGUTZERA” kanpainaren barruan derrigorrezko hezkuntzari buruzko bilera informatiboa San Frantzisko Xabier ikastolan. 17,45etan euskaraz eta 19,00etan erderaz.

**ARRASATEN EUSKARAOKEA**

Herriko plazan arratsaldeko 5,30etan.

**ZINEA**

Arrasateko Amaia antzokian “Kalifornia” filmea egongo da ikusgai, gaueko 9,30etan.

**14**

egukotxa

**ARETXAGAZETAKO BATZAR  
OROKORRA**

Arratsaldeko 7,30etan udaletxeko pleno aretoan.

15

zapatua

“ARETXABALETA SARIA 96”  
banaketa

Udaletxean goizeko 11,30etan.

16

domeka

**MENDI IRTEERAK**

**ERL**Ora irteera eta bazkaltzeko  
**SAGARDOTEGIRA.**

Apuntatzeko Murrukixoko lokalean edo  
eta Arlutzen.

**PAGO**GANera irteera

Zaraia mendi taldeak antolatuta.

19

eguztina

**BIKONSTRUKZIOARI  
BURUZKO HITZALDIA**

**Josu Jauregik** emango du. Loramendi  
Elkartean izango da arratsaldeko 7etan.

*ikastaroak*

**IGERI eta AQUAGYM** ikastaroak.

Informazio gehiago kiroletxean  
79 64 61 telefonon.



**BEHAREZKO  
TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

**TXINO DANTZA**

Aratuste domekan eguerdiko ordu batetan plazatik irtenda gure artean izango dugu TXINO DANTZA.

Linozko soineko, galtzerdi eta zapata desberdinekin eta txapel arraroekin aterako zaizkigu dantzariak, zein baino zein ikusgarriago eta honako kantua abesten dutela:

Txin, txin, txin, txin,  
mahatsa heldu gabe dago.

Txin, txin, txin, txin,  
baina helduko da.

Txiribito ta andrea  
joan ziren jatera

Txiribito haserretu ta  
bota zun lapiko.



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

**ARETXABALETA**

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

**ARETXABALETA**

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

sofa  
leku

centro  
hogar  
muebles



a, eme... interiores



Estilo  
guztietako altzariak  
aurkituko dituzu  
gure dendetan.

Zatoz, eta zuk  
aukeratu!!

grupo



Amuebladora  
Mondragonesa

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03  
**centro hogar muebles**, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92  
**sofa leku**, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92